

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko martxoak 18 • 141. zka.



Aretxabaleta etorkizun hurbilean

Elkarrizketa: Txema Gallego

Iritzia: Juan Mari Ochoa

Kirolak: Iñaki Etxeberria



**Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartuz.**

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurira
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilari eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S. L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.




Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.



Burtsan inbertitzen duzu?



Raquel Marrodan (Langilea)

Burtsak nola funtzionatzen duen ez dut ulertzen eta inbertitu ere ez dut egiten.



Juan Carlos Arietaleaniz (BBVko zuzendaria)

Bai, burtsan inbertitzen dut. Momentu honetan altu dago, baina berehala igo edo jeitsi egiten du. Jendeak gero eta gehiago inbertitzen du burtsan, errenta finkoak gero eta diru gutxiago ematen duelako.



Alejandro Hernandez (Langilea)

Nik ez dut burtsari buruz ulertzen baina bertan inbertitzeko aholkatzen didan lagun bat daukat. Gero eta gehiago inbertitzen dela uste dut burtsan.



Maidier Elkoro (Ikaslea)

Ez dut ulertzen ez eta inbertitzen ere. Oraingoz dirurik irabazten ez dudanez, ez naiz gaiaz asko ardurutzen.



eskutitza



Elgeako zentral eolikoak

Elgeako mendilerroan EVEK (Ente Vasco de Energia) eraikitzeke asmoa duen zentral eolikoaren alde **negatiboa** azpimarratu nahi dugu Murruxio Mendizale Elkartetik, ondorengo puntuetan oinarrituta:

- Gure mendientzat energia honek suposatuko duen eraso bortitza, ez bakarrik erroten estetika (60 m.ko dorreak) eta zaratarengatik, baita berau eraikitzeke zabalduko den karreterarengatik ere (250 Tm. igotzeko modukoa). Zentralaren dimentsioak (13 Km), Leixargarate eta Urbia bitarteko mendiak guztiz eraldatuko ditu.

- Aizgorriko parke naturalaren eta Elgeako zentral eolikoaren arteko kontraesana.

- Zentral hau lehenbailehen egin nahi izana, euskadiko mapa eoliko zehatzik eduki gabe, Europako energia merkatuaren liberalizazio aurretik eta Parke naturala izendatu aurretik.

- Errota eolikoaren teknologian mardulasun falta: hemen jarriko diren errotak 600 Kw sortuko dituzten artean, gaur egun Dinamarkan 1.500

Kw sortzeko gai direnak ipintzen hasi dira.

- Gaurko eredu progresistaren ondorioz, energia eolikoak ez da alternatiboa, konplementarioa baizik (zentral termikoak itxi ordez, Bizkaian bat zabalduko dute); merezi al du lortuko den energiarengatik dugun ingurugiro apurra deusezte? Elgeako zentral eolikoak beste kutsadura moeta bat kontsidera dezakegu.

Azkenik, argi utzi nahi dugu ez dugula energia eolikoak kuestionatzen (gutziz ados gaude duen potentzial ekologikoarekin), baizik eta, aurrera ateratzeko modua eta tokia. Agur bat,

MURRUKIXO MENDIZALE
ELKARTEA

Loidi-Garitano anai-arrebei

Funeraria Arrasatek azalpenak eman nahi ditu 1998ko martxoaren 6an aldizkari honetan agertu zen kezua.

Zera azaldu nahi dugu, alegia, hildakoaren etxean izan ginenean gure

lana egiten, gaizki urlertu bat egon zela kalean jarri beharreko eskelen inguruan, eta horregatik ez zirela euskaraz ipini.

Gure eskelak irakurtzen dituen edonor kontura daiteke haien egitura bi hizkuntzetan azaltzen dela, euskaraz eta gaztelaniaz, horrela familiar-tekoek eskatzen digutenean, testua euskaraz edo gaztelaniaz joan dadin.

Lekukoak ditugu familia askotan, gai honetan dugun jarrera horixe dela baieztatu dezaketena.

Beste gauza bat ere argitu nahi dugu: hildakoaren familiar-tekoak konturatu zirenean martxoaren 2an, hiletak egin behar ziren egunean, testua gaztelaniaz zegoela, ez zigutela inondik ere esan nahiago zutela eskela euskaraz idaztea. Azken kasu honetan ez zen inongo arazorik izango eta eskelak aldatu egingo ziren.

Beraz, gure ustez, Loidi-Garitanotarren kexua ez dator bat errealtatearekin.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz.
Erredakzio-kontseilua: Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre,
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Iratxe Bengoa, Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Momentu honetan aterpetxea itxita dago, apirilerako zabalduko da

Sutea Azatzako aterpetxean

Otsailaren 27an sutea gertatu zen Azatzako aterpetxean. CIMeko ikasleak astebukaera pasatzen zeuden aterpetxean, baina zorionez inor ez zen zauritu. Sutearen

ondorioz gela bat guztiz kiskalita gelditu zen, eta instalazio elektrikoa erreta. Sutea eragin zuten arrazoiak ez dira ondo ezagutzen baina, itxura denez, estufa batek

eragin zuen.

Jose Olabek azaldu duenez, Lagun Aro aseguru etxeak oso ondo erantzun du konponketa lanen aurrean eta hauek hasita daude dagoeneko. Lanak hile bukararako amaituta egotea espero da. Tarte horretan aterpetxea itxita egongo da, eta dena uste bezala joan ezkerro, apirilean zabalduko da.

Azatzako aterpetxea Arrasateko artzapezgoarena da. Zabaldu zenetik jende ugari izan da bertan, batez ere astebukaeretan. Uda honetan, uztaila eta abuztuan, kanpoko jendea etorriko da aterpetxera: Katalunia, Kanariar irlak eta Balentziatik. Normalean elizako taldeak izan ohi dira aterpetxea erabiltzen dutenak, azken hauek bezala.

Asfalto berria bota da Azbe parean

Geltoki plazan, hau da Azbe pareko errepidean asfalto berria bota zuten joan den astean. Errepideak gorabehera ugari zituen, putzu haundiak sortzen ziren eta hori ekiditeko bota da asfalto berria. Jose Mari Segovia hirigintzako teknikariak gaineratu



duenez, asfaltoa zati batzutan bakarrik ez botatzearen, denean bota da. Lau egun iraun zituen

obrak, 3.500.000 pezetako kostua izan du eta Pavisa enpresa izan da aurrera eraman duena.

Milaka har Bedarreta auzoan

Bedarretako San Migel auzoan dagoen jardinean milaka har agertu ziren joan den martxoaren 9an. Ondorengo egunetan euriarekin desagertu baziren ere, IZA enpresako kideak palekin garbiketa lanetan aritu behar izan zuten. Bi zm.tako luzera eta bi mm.tako diametroa zuten harrek, baina oraindik ez dakite zergatik agertu ziren. Dena den, Eusko Jaurlaritzako osasun departamentura eraman zituzten ikerketa lanak egiteko.

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Pelikularik hoberenak

DON BIDEO

Lezama Merkatal zentrua
ARETXABALETA



Ilargiko baxuan joango da Consum berria

Consum bakarria herrian

Maiatzean berrikuntza lanetan hasi eta azarorako zabaltzea espero da

Azarotik aurrera, Consum bakarria egongo da Aretxabaletan. Gaur egun Durana eta Aralar kalean dauden establezimenduak desagertu egingo dira eta hauen ordez, handiago bat zabalduko da.

Erabaki hau hartzera bultzatu duen arrazoia, Consum-ak bete behar dituen ezaugarriak ez

edukitzearena izan da. Gainera, leku falta dela eta, errazagoa izan da proposamen honekin aurrera jarraitzea. Durana kalean dagoen establezimenduak adibidez, materiale guztiak sartzeko lekurik ez dauka, eta lekuz kanpo kokaturiko osagaiak direla eta, bezeroei merezitako erosotasuna ezin eman izatea adierazi dute.

Arraindegi eta harategia

Zabaltzeko asmotan dagoen denda berriak arraindegia eta harategia izango du, Consum motako establezimendua izateko, bete beharreko baldintza da eta.

Ezaugarri hauekin bat egingo duen lokal baten bila ibili da Eroski, iazko abenduaren 19an Ilargi lantegiko lokala eskuratu zuen arte.

Beraz, ohiko lantegiaren behe solairuan kokatuko da. Honen gainean aldiz, langileenn aldagelak eta makina gela bat egongo da.

Maiatza eta abuztu bitartean, berrikuntza lanekin hastea espero da, azarorako amaitu eta zabaldu asmoz.



Durana kaleko Consum-a



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

Logopedia eta
psikologia tratamendu
kliniko eta hezitzaileak
haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 79 79 46
ARRASATE




LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Gaztetxeko 7.urteurrena, ekintzaz beteriko eguna



Dagoeneko pasa dira 7 urte Aretxabaletako gaztetxea zabaldu zenetik. Hau ospatzeko, ekintzaz beteriko eguna antolatu zen martxoaren 7an. Txapelketak, trikitilariak, kontzertuak eta sagardo dastaketa egon zen beste gauza batzuen artean. Bertan giro aproposa sortzeaz gain, ekintzetan izandako partehartzea ere oso nabaria izan zen. Tortila txapelketan, Jorge Pandok lehen postua eskuratu zuen eta Eneida Egurzak bigarrena. Tutean, Jone eta Idoia bikote eibartarra izan zen garaile. Unamuno eta Berasaluzek futbolinean irabazi zuten, eta azkenik, etxeko patxaran lehiaketan, Unai Egurza lehenengo eta Mikel Lopez bigarren izan ziren. Zein ete da sekretua?

Sagardotegia erakusgai aurrerantzean

Lehen sagardotegia izandako Durana kaleko 15. zenbakiko Etxabena etxetik lau kupel eta sagardoa egiteko tresnak atera zituzten Baster-alde jatetxera eramateko. Materiala zahartuta zegoenez, konpondu eta erakusgai jarriko dute Baster-aldean. Beraz, sagardotegiko kupelak, prentsa, eta tresnak badakizue non aurkituko dituzuen aurrerantzean. Gogoratu Etxabeneko sagardotegia 1945. urtean itxi zela.



Udal euskaltegien saria Arrasatera

Gipuzkoako Udal Euskaltegien kanpainaren barruan, Herri Irratian sei saio egin zituzten. Saio hauetan lehiaketa bat egin zen eta guztira 228 lagunek hartu zuten parte. Lehenengo saria Arrasatera etorri zen. Marian Porcel izan zen irabazlea, eta saria, berriz, Milar dendak oparitutako musika ekipoa. Argazkian, Nerea Maiztegi, Arrasateko Udal Euskaltegiko zuzendaria, eta Jesus Mari Elkoru, Milar dendako jabea ditugu Marian Porcelekin batera.



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABALETA

Hamabost gai tratatu ziren asteleheneko plenoan

Udalak bi garaje jarriko ditu enkantean San Migel auzoan

Joan den astelehenean plenoa egon zen udaletxean eta guztira hamabost puntu tratatu ziren bertan. Besteak beste hauek izan ziren gaiak:

- Institutorako bi makina esku-
ratzeko konkurtsoa Delteko enpresari
esleitu zaio. Rektifikadora zilindrikoa
eta rektifikadora normala zazpi
milioitan erosiko ditu Udalak.

- Udaletxerako ordenagailuak
erosteko konkurtsoa, bestalde, Micro
Cesoin enpresari esleitu zaio. Udalak
bost ordenagailu eta lau inpresora
erosi ditu 1.553.090 pezetatan. Dagoeneko ordenagailuak erosita daude eta ondorengo leku eta sailetan jarri dira: Kultur etxean, liburutegian, udaletxeko sarreran, kiroldegian eta ongizate sailean.

- 27-29 zonaldeko PEASa Probisa enpresari esleitu zaio 80.470.000 milioi inguruko kantitateagatik.

- Urtarrilaren leko 5.996 biztanleko Udal errolda onartu da. 85 izan ziren altak eta 65 bajak.

- Kurtzebarri mendiko ustiaketa-

rako 29. 836.000 milioi pta.ko pliegoa onartu da.

- Udalak San Migel auzoko bi garaje enkantean jarriko ditu. Bata 2.500.000 milioitan eta 1.500.000 milioitan bestea.

- Almen ikastolarekin hitzarmena sinatu da. Foru Aldundiak ordaindu beharreko Galartzako natur-etxearen hiriztatze obren %50a ordainduko dio Udalak Almeni.

- Kurtzebarri eskolarekin hitzarmena sinatu da. Kurtzebarri eskolak duen baratza biologikoa Jose Lonbide arituko da Udaletik aurtengo urtean erakusten. Datorren ikasturterako eskolako irakasle batek jarraitu beharko du lan horrekin.

- 25 zonaldeko (Araba Ibilbidea 25 inguruan) 25 etxebizitza berri egiteko aurrerapena onartu da.

- 33. sektoreko (Bainuetxeko



Asteleheneko plenoa

industrialdea) zatikako egitamuaren behin-behineko onarpena egin da.

- Gellaoko bizilagunek Gellao auzoa Eskoriatzatik banandu eta Atxabaltara erasnteko eskaera egin dute. Gai hau hurrengo plenoan erabakitzea pentsatu da, gaia hobeto aztertu eta Eskoriatzako Udalak zein jarrera azaltzen duen ikusitakoan.

Hau eta beste hainbat gai, martxoaren azken astean egingo den plenoan onartzeko utzi ziren.

**Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.

BAQUE KAFEAK
XUABEA

**EXPRESSO
a la
crema**

**Ahorre
Suave**

TUESTE NATURAL



Udalak Kurtzebarri aldean ditu lur sail gehienak

Udalarena den pinudia botatzen ari da Central Forestal enpresa

Kurtzebarriko maldetan, Hiruatz mendiaren azpikaldean Udalak duen pinudia botatzen ari da Central Forestal S. A. enpresa. Urtarrila bukaeran ekin zion pinuak botatzeari eta hitzarmenaren arabera 15,5 hektareako pinudia botatzeko urria arteko epea du. Udalak 27 milioi jasoko ditu pinudiagatik, hasieran jarritako prezioa baino hiru milioi gehiago. Izan ere, hasiera batean Udalak 24 milioitan atera zuen konkurtsora eta 27 milioitan esleitu zion Central Forestal enpresari.

Hosto galkorreko zuhaitzak

Pinudia bota ondoren, Udalak oraindik ez du erabaki lur sail horretan zer egingo duen. Auzo-etako zinegotzia den Jesus Kortabarriaren iritziz, "hosto galkorreko zuhaitzak edo eta zuhaitz autoktonoak landatzea da egokiena, leku aldapatsua izanik, ahalik eta erosio

gutxien egon dadin. Hosto galkorreko zuhaitzak bizi iraupen luzeena dutenak dira, beraz, modu honetan ez litzateke baso mozketak osoa egingo, pinudiekin egiten bezala.

Orain artean, Udalak birpopulatu dituen lur sailetan pinua izan da gehien landatu duena. Ondorengo laukian garbi ikusten da hori. Dena den, Jesus Kortabarriaren berbetan, zuhaitz autoktonoak landatzera jo behar da.

Udalak bere lurretan duen landaretza

- Insignis.....	316.432 m2
- Larizioa.....	49.537 m2
- Artadia.....	17.750 m2
- Baso mistoa.....	114.625 m2
- Berritutako basoak...	54.875 m2
- Harkaitza.....	211.125 m2
- Desforestatua.....	923.375 m2

Batzar orokorra

Aretxabaletako herri komunika-bideak-Loramendi elkarteak ohiko batzar orokorra egingo du datorren martxoaren 31an, martizena. Gogoratu iazko ez-ohiko batzar orokorrean Aretxagazeta elkartearen izena aldatzeko erabakia hartu zela, horregatik aurrerantzean batzarrerako deialdiak goian aipatzen diren izen berriarekin joango dira. Batzarra arratsaldeko 7etan hasiko da Udaleko pleno aretoan eta gai zerrenda ondorengo da: aurreko batzarraren akta irakurri eta onartu. Aretxagazeta aldizkariaren 1997ko jardueraren laburpena, Aretxagazeta aldizkariaren 1997ko balantzea eta 1998ko aurrekontua, herri telebistaren egoera eta batzordekideen aldaketa.

Emakumeendako automozio ikastaroa institutoan

Emakumeei zuzendutako automozio ikastaroa antolatu du Aretxabaletako institutuak. AUKERAREN eskutik sortutako inizatiba honetan, irakaslea ere emakumea izatea da helburuetariko bat. Aukeratutakoa, institutoko ikasle ohi bat izan da.

10 ordutako iraupena duen ikastaroan, kotxeari gerta dakizkion oinarriko arazoei aurre egiten ikasiko da; gurpil aldaketa eta parabrisetako eskobilen aldaketa bezalako ekintzak, besteak beste. Klaseak martitzen eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko 6etatik 8:30etara.

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAleta

Txema Gallego

Euskadiko laguntza-txakurren erreskate taldekoa

Bere txakurra den Pol-ekin batera Euskadiko laguntza-txakurren taldeko partaidea da Txema Gallego. Orain lau urte hasi zen txakurra entrenatzen, taldeak Elorrion duen egoitzan. Taldearen helburua, mendian galdu-tako jendea edo hondakin artean lurperatutakoak erreskatatzea da.



- Nola sartu zinen Euskadiko laguntza-txakurren taldean?

- Erreskate taldeen lana interesgarria iruditu izan zait beti, eta orain lau urte sartu nintzen taldean. Euskadiko laguntza-txakurren taldea Euskadin dagoen bakarra da. Era berean, Alemaniako federazioko lanerako txakurren eta munduko erreskate taldeko kidea da. Eusko Jaurlaritza eta beste enpresa pribatu batzuk subentzionatua dago. Elorrion dago egoitza eta asteazken eta larunbatetan egiten ditugu txakur-errekarekin entrenamenduak.

- Nola funtzionatzen du erreskate taldeak?

- Taldea SOS deiak koordinatzen du. Borondatezko lana da eta taldean egunero hiru pertsonak gertu egon behar dute, erreskateren bat egiteko deitzen badigute. Hiru pertsona horiek taldeko zuzendariak aukeratzen ditu, momentu horretan maila onena erakusten dutenak izango dira. Jakina, titulazioa izan behar dute.

- Titulazioa aipatu duzu, zer nolako titulazioa eskatzen da?

- Erreskatetan parte hartu ahal izateko, homologatuta egon behar da. Nazioarteko hiru homologazio mota daude: mendikoa, hondakin-terako, eta elur-jausietakoa. Titulazio horietako bakoitza ateratzeko azterketa bat pasatu beharra dago.

“Maiatzean hondakin-terako nazioarteko homologazioa ateratzeko asmoa daukat”

- Badaukazu zuk homologaziorik?

Bai, mendikoa. Maiatzean hondakin-terakoa ateratzeko asmoa daukat eta datorren urtean elur-jausietakoa.

Dena den, titulazio hau atera ondoren ere, txakurra etengabe trebatzen joan behar da.

- Zer nolako probak izaten dira?

- Hondakin-terako homologazio probak esaterako hiru egun iraungo ditu. Estatuko eta Europako epaimahaikideak etorriko dira eta bertan ariketa desberdinak egingo ditugu. Bat esaterako, hiru pertsona hondakinen azpian sartzen dituzte eta txakurrak hogeita minutu dituzte aurkitzeko. Kasu erreala izango balitz bezala jokatu behar duzu.

- Zein txakur arraza da erreskate-terako erabiltzen dena?

- Mota askotako txakurrak

erabiltzen dira. Lehen onena artzain txakur alemana bazen ere, gaur egun erantzunik onena ematen ari dena, artzain txakur belganda, eta hauen barruan malinois motakoa. Euskal artzain txakurra ere oso ona da.

- Denbora asko eskatzen du txakur hauek hezitzeak?

- Homologatutako txakur-errekarekin lortzeak denbora eramaten du. Txakurrari kontzeptuak ondo asimilatzen erakutsi behar zaizkio eta ezin du hutsik egin. Entrenamendu etapa desberdinak daude eta gero eta gehiago konplikatzen joaten dira.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten diozu txakurrari?


- Hizkuntza bat baino gehiagotan: euskera, erdara, alemana, ingelesa... Agindu bakoitza modurik motzenez ematen da, txakurrak samurrago ikasten ditu-eta. Hori bai, beti hitz berdina erabiltzea komeni da.

- Txakurrak nola bizi du guzti hau?

- Txakurrarentzat, erreskate batean dagoenean, pertsona bilatzea da garrantzitsua. Normalean ez du hutsik egiten eta ondoren berak hain gustoko duen saria ematen zaio.

- Erreskate taldekoa borondatezko lana dela kontutan hartuta, nolabait konpentsatzen du egiten den lana?

- Taldean gaudenok lana gusztatzen zaigulako egiten dugu. Borondatezko lana da eta gehienez ere erropa ematen digute. Dena den, urtean hainbat alditan beste batzuen bizitzak salbatzeko deituek, egingo dako lana konpentsatzen du. Ni oso gustora nabil eta falta zaizkidan bi homologazioak atera eta lanean jarraitzeko asmoa daukat.



**“Burtsan
kainoi zaratak
entzuten
direnean erosi
behar da eta
biolin soinua
entzuten
denean, berriz,
saldu”**

Zuhaitzak ez dira zeruraino hazten

Burtsa moda-moda dagoen fenomeno da. Kafe orduko solasaldietan, egunkarietako lehen orrialdeetan, merkatuan jasotzen diren errentagarritasun miresgarrietaz besterik ez da hitz egiten. Rostchild baroiak behin esan zuen, zapata garbitzaileak erosi zituen akzioak zer iruditzen zitzaizkion galdetu zionean, establezimendutik irten bezain laster bere kartera guztia saltzeko agindua eman zuela.

Burtsak %27an igo du aurtengo urtean, aurreko bi urteetan kopurua bikoiztu ondoren. Gertatu denak bere esplikazio ekonomikoa du, denbora tarte berean, interesak jeitsi egin dira, %12tik %5,20ra Estatuak Euroaren bateratasun ezaugarrietan sartzeko egin duen ahaleginagatik.

Gaur eguneko mailatik burtsak igotzen jarraitzen badu, egoera

arriskutsura hel daiteke, aldekoak diren faktore gehienak jadanik kontuan hartuak izan baitira.

Inbertsore partikularrarentzat zuhurtasunez joka dezala gomen datzen dut, eta aholkulari profesionalen bidez inberti dezala. Gogoratu burtsan ezin dela etorkizunean erabiliko den dirua inbertitu, burtsan epe luzerako inbertsio ikuspegia duen dirua sartu behar da, orduan errentagarritasun onenak lortzen baitira.

Bukatzeko aholku bat, kalean entzuten diren sirena kantuetaz ez dugu fidatu behar, ez ahaztu Burtsan kainoiek zarata ateratzen dutenean erosi egin behar dela eta biolina entzuten denean saldu.

JUAN MARI OCHOA

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

**PAGALDAI
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Aretxabaleta, XXI. mende hasieran

Etxebizitza berriak, Bainuetxeko industrialdea, ur-zikinen hodi-biltzailea, trafikoaren antolaketa eta erreken integrazioa dira datozen hiru-lau urtetan aurrikusten diren obra garrantzitsuenak

Herria goitik behera aldatzen ari zaigu denbora gutxian. Etxebizitza eta bide berriak, obrak han eta hemen... badirudi herria beti obretan dagoela. Hurbiltzen zaizkigun urteetan ere, obra garrantzitsuak egingo dira: ur-zikinen hodi biltzailea, bainuetxeko industrialdea, etxebizitzak, trafikoaren antolaketa berria...

Hemendik hiru-lau urtetara, beraz, zein aldaketa emango da gure herrian?

Norberaren herrian, eta bereziki inguruan, egin behar diren obrak denoi interesatzen zaizkigu. Arau subsidiarioek markatzen dute herri bateko lurzorua erabilera, lur industrial den, urbanizagarria den edo ez, etabar. Aretxabaleta kasuan, 84an onartutako arauak indarrean daude oraindik. Aldaketarik izan badute ere, bertan jasotako arauen arabera eraiki da azken urte hauetan.

ETXEBIZITZA UGARI

Etxebizitzari dagokionez, azken urteotan etxebizitza asko eraiki da herrian. Atzera begiratzen badugu, 84tik 93. urtera bitartean, 284 etxebizitza eraiki ziren: Lausitta, Santa Kurtz, Mitarte eta Errekarbaren. Honek urteko batz besteko 31 etxebizitza suposatu zuen. 93tik 98ra bitartean, berriz, 218 etxebizitza eraiki dira. Belorrietan, 80, Markolen 90 etxebizitza, beste 18 adosatu eta 2 unifamiliar eta San Migelen 28 etxebizitza. Urteko batz bestekoa ateratzen badugu, 54,5 etxebizitza suposatzen du, beraz, aurrean aipatutako kantitatea ia bikoiztu egiten du eta urte gutxiagotan, gainera.

Gaur egun, arau subsidiarioetan lur errezydentziala izendatuta dagoen lurzoruan, 221 etxebizitza egiteko daude, batzuk eraikitzen hasita daude jadanik eta erreserban daude gainontzekoak. Informazio hau beheko laukian jasotzen da garbiago. Erreserban dauden 117 etxebizitzak, hemendik hiru lau urtetara eraikitzea aurrikusten da.


Aipatutako etxebizitza hauekin aurreko bost urtetako media mantendu edo eta gehitu egingo litzateke. Bestalde, esan beharra dago, eraikitako M/2aren batez-besteko prezioa 180.000 pta /m2koa dela.

BIZTANLERIAK IGO

Hirigintzako zinegotzia den, Koldo Azkoitiak azaldu digunez, "etxebizitzen eskaria haundia da momentuz behintzat eta eraikitzen ari diren eta eraikiko diren 221 etxebizitza horien merkatua ziurtuta dago". "Kontutan izan behar da, eskari hau ez dela atxabaltarrena bakarrik, inguruko herrietatik ere gureru datozelako bizitzera, Arrasatetik batez ere". Azken urteotan, "Arrasaten eta Eskoriatzan proportzioan ez da horrenbeste etxebizitza eraiki, beraz, etorkinak izan dituen herria izan da gurea". Biztanlegoaren padroia begiratzen badugu, aurtengo oraindik ez bada onartu ere, urte bukaerarako Aretxabaleta 6.200 biztanle izango dituela aurrikusten da. Hori horrela bada,

Lekua	Etxebizitzak	Eraikitzen	Erreserban
Santa Kurtz kalea (Iturrigorri frontoi parean)	27		27
Ilargiko etxebizitzak	52	52	
Belorrieta	102	52	50
Portasol	32		32
Markole	10		10
Guztira	221	104	117

“Etxebizitzen eskaria haundia da momentuz behintzat eta honek nabarmen igoko du herriko biztanleria”



Bainuetxeko industrialdea aurtengo urtean hasiko da eraikitzen. 15.000 m² izango ditu plantan eta urbanizazio guztiak ia 450 metroko luzera izango du.

biztanleriak igoera nabarmena izan duela esan daiteke, iazko pardoia-aren arabera 6.000 biztanle baino gutxiago baitzeuden herrian.

Koldoren ustez, etxebizitzaren eskaria asko baretuko da hemendik 4-5 urtetara. Hala ere, eskaintza egotea garrantzitsua da "eta hortara jo behar dugu", prezioak mantentzen laguntzen duelako. Dena den, beti ere, eskariaren arabera egingo dira etxebizitzaren proiektu berriak.

BAINUETXEKO INDUSTRIALDEA

Aktibitate ekonomikoa inguruan izatea garrantzitsua da, honek lan merkatua suposatzen duelako. Hala ere, garbi dago, lur industrial eta errezidentzialen artean oreka bat egon behar duela. 84ko araudiak jasotzen zuen industrial lurzorua betetzen joan dira poliki-poliki. Industrialdea bera ere zeharo beteta dago. Beraz, ondorengo urteetan sortuko den industria eskariari aurre egiteko, pabiloi berriak egingo dira.

Aurtengo urtean hasiko den

obra garrantzitsu bat, Bainuetxeko industrialdea da. 15.000 m² izango ditu plantan, eta urbanizazio guztiak ia 450 metroko luzera izango du. Urtebete inguruko epean pabiloiak eginak izango ditugula espero da, eta honek lur industrialak datozen urteetan izango duen eskaera asetuko duela uste du Udalak. Arlo honetan gaineratu behar da, beste 1.000 metroko pabiloi bat ere egingo dela Larrinbe inguruan.

Etorkizunera begira, industrikerogero eta espazio gutxiago eskatuko duten arren, mekanizazioa dela, terziarizazioa dela... ditugun lanpostuak mantendu nahi baditugu, industrialde berriak egitea ere ezinbestekoa dela azaltzen du Koldok.

ARETXABALETA BIZITZEKO ERAKARTZEN DUEN HERRIA

Orokorrean esan dezakegu, Aretxabaleta bizitzeko erakartzen duen herria dela. Urbanizazioa ondo definituta dago, eta esan daiteke, aurreko arau subsidiarioak ondo bete direla. Kanpotik datorren jendeak ere balorazio positiboa egiten du gure herriaren inguruan. Hala ere, herria haunditzen doan heinean, arazo berriak sortzen dira, aparkalekuena esaterako.

Datorren urtean onartuko diren arau subsidiarioek, etxebizitzak eta industria eraikitzeko zonalde berriak onartuko ditu

Pixkanaka Udalak arazo berri hauei erantzuna eman beharko die.

Etorkizun hurbila ezagutzen badugu ere, 84ko arau subsidiarioak dagoeneko asetuta daudela esan dezakegu. Horregatik herriko lurra arautuko duten arau berriak onartzeko premia dago. Honela, hurrengo urterako arau subsidiario berriak onartuko ditu Udalak. Bertan, etxebizitzak eta industrialdeak eraikitzeko zonalde berriak eta lurrari emango zaizkion erabilera berriak jasoko dira.

Etxebizitzaren eta lur industrialaren eskaria baldin badago behintzat, Udalak hauek asetzen ahalegindu beharko du. Hala ere, merkatuak norantz joko duen, ezin da ziurtatu.

Beste obra garrantzitsu batzuk

Trafiko plana

Belorrietako errepide berria uda aurretik zabalduko da. Abiadura murrizteko neurriak jarriko dira bertan, luzera handiko badenak.


Abiadura murrizteko neurriak herriko beste kale batzutan ere jarriko dira: Araba Ibilbidean, Loramendi kalean... Herriko trafikoak norabide aldaketak izango dituela ere aurriztatu da.

Deba ibaiaren integrazio plana


Deba ibaiaren estruktura herrira integratu asmoz, pasealekuak egingo dira ibaiaren bi ertzetan. Horrela, Deba ibaiak herriko alde batetik besteraino pasealekua izango du, bere eskuin eta ezker aldean. Honetaz gain, erreka gehiena bideratuta dagoenez, momentu honetan zaila da erreka jeistea, eta horretarako jeisteko lekuak jarri nahi dira.

Bainuetxea eta Araba Ibilbidea lotuko duen errepidea

Industrialdearekin batera Araba Ibilbidea eta Bainuetxea lotuko duen errepide berria egingo da. Loramendi kalean hasita, errepideak Bainuetxeraino jarraituko du.




Ilargiko etxeen planoa



Belorrietako etxeen planoa

Herria hankaz-gora jarriko duen hodi -biltzailea

Datozen urteetan herrian egingo den obra garrantzitsuenetakoa izango da ur-zikin hodi-biltzailea. Hodi biltzaile honen infrastruktura herrian zehar sartzeak eragin handia izango du herrian eta herritarron eguneroko bizitzan. Metro bateko diametroa izango duen hodiak herriaren hegoaldetik hasi eta herri guztia gurutzatuko du: Araba Ibilbidea, gero Bizkaia kaletik Errekabarrenera pasatuz eta hemendik Otorala kaletik Murubiden sartuko da. Ondoren, San Migel auzoa zeharkatuz, Tubosetara eta hemendik Arrasaterantz jarraituko du. Errepidearen erdi-erdian sartuko da, batez-beste hiru metro sakonera hartuz, eta ez hori bakarrik, hodi nagusiak beste txikiago batzuk ere izango ditu, ur zikin guztiak eta industrietatik



datozenak jaso ahal izateko.

Obrak aurten hasiko badira ere, data zehatzik ez dago oraindik. Hamalau hilabete iraungo duen obra honek, herria hankaz-gora jarriko du. Udala, jakina, herria ahalik eta ondoen antolatzen ahaleginduko da, obrak iraungo duen epe horretan.

Hodi biltzailearen obrak, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta Kortsorzia arduratuko dira. Gure herriko obra Foru Aldundiak bideratuko du eta 970.000 milioi pezetako aurrekontua du. Konparaketa bat egiteko, Udaleko urteko aurrekontua 700.000 milioi pezetakoa da, beraz, ez da nolana hiko obra.

Aurrerantzean, Deba ibaiaren garbi ikusi nahi badugu behintzat, beharrezkoa izango dugu.



Errasti anaiak, "Liga Vasca"ko finalera

Pasa den zapatuan jokatu zuten Errasti anaiek "Liga Vasca"ko finalera pasatzeko partidua.

Martxoaren 7an gernikarren aurka 22-12ko emaitzaz irabaztea lortu zuten, eta aurreko astebukaeran bueltako partidua jokatu zuten Aretxabaletan.

Jokaldiaren hasieran 5-5eko markagailuarekin nahiko parekatuta ibili baziren ere, bukaerarako 22-6ko emaitza lortu zuten. Etxekoek 13 puntu nahikoa zuten finalera pasatzeko. Atxabaltarrek joku ona erakutsi zuten, baina abantaila txiki bat ere izan zuten. Beste bikoteko



Semifinaleko partaideak

atzelariak ezin izan zuten jokatu eta bere postua aurrelari batek bete zuten.

Atxabaltarrek lortutako emaitzaren ondorioz, datorren apirilaren 3an Liga Vasca-ko finala jokatuko dute Bergaran.

Karate eskola kiroletxean

Azken urteotan, karateaz interesaturiko jende asko egon da. Aretxabaletan. Eskakizun hauei erantzun asmoz, karate eskola martxan jarri nahi da apirilean. Irakaslea, Odilo Vazquez izango da.

Deialdi hau irekia da, beraz, interesatuta dauden 6 urtetik gorako guztiei Kiroletxera deitzea eskatzen zaie (79 64 61).

Taldean banaketa, apuntatutako pertsona kopuruaren arabera izango da. Taldea osatzeko pertsona nahikoa egoten ez bada, ezingo da karate eskolarik sortu. Beraz, interesatuei lehenbailehen apuntatzea eskatzen zaie.

Deba Garaiko Kirol Txapelketak

Deba Garai mailan antolatutako txapelketa hauetan, kirol desberdinak praktikatzeke aukera dago, baita kirol bakar batetan aritzekoa ere. Eskeiniko diren kirolak, pala, tenisa, frontenisa, squasha eta pelota izango dira.

16 urtetik gorakoei zuzenduta dauden txapelketa hauen helbu-

ria federatu gabe dauden eta kirolen baten konpetitu nahi dutentzat txapelketa eskaintza handitzea da. Urte guztian zehar kirol txapelketa desberdinak eskaintzea eta txapelketa horiek elkarren artean erlazionatuz bailarako zirkuitoak sortzea da asmoa.

Txapelketa bakoitzak, 7-9 aste inguruko iraupena izango du. Dagoeneko hasi da frontenis txapel-

ketak Bergaran, eta squasha Oñatin. Apirilaren erdialdera, pala txapelketa izango da Aretxabaletan, Frontenis eta Squasha Arrasaten eta Tenisa Oñatin. Edozeinetan apuntatzeko, txapelketak burutzen diren herrietako kirol zerbitzuetara zuzendu behar da. Honen prezioa, Deba Garaiko edozein kirol zerbitzuetako abonatuentzat, 1.000 pezetakoa da, gainontzekoentzat aldiz 2000.



**Larunbat
arratsaldetan
zabalik**

Esko Sport

Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 96
ESKORIATZA

ARGAZKI


UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

OPEL 

SPORT

Zerbitzu Ofiziala

- **Kotxe marka guztien konponketak**
- **Zerbitzu guztiak**

Basabe Poligonoa, A-1-3 •
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /
Fax: 77 17 20
ARETXABALETA

Iñaki Etxeberria

“Orain dela 25 urte sortutako txabola da”

Iñaki Etxeberriak mendian ibiltzea atsegin du, eta grina hori mantendu asmoz, Leixargarateko txabolaren arduradun izateko aurkeztu zen. Ahal duenean bertara joaten da, mendian ibili eta ondo pasatzeko leku aproposa iruditzen zaio eta.

• **Zenbat denbora Leixargarateko txabolako arduradun bezala?**

Aurten hasi naiz. Kasu honetan ez zen aukeraketarik egon. Ardura-duna izateko prest nengoela esan nion Murrukixori. Honek onartu zuenean, UDARI esan, eta honek ere baietza eman zuen

• **Zeintzuk dira zure eginbeharrak?**

Orokorrean txabolaren inguruan gertatzen den guztia kontrolatzea. Bertara joateko apuntatzen diren pertsonen koordinaketa, butanoa eta egurra kontrolatu, zerbait apurtu edo faltan egonez gero, konpondu...Txabolaren mantenimentua da neure eginbeharra.

• **Jende asko joaten da bertara?**

Uztaileraino asteburu guztiak hartuta daudela estea besterik ez dago. Orokorrean jendea asteburuetan joaten da, hala ere, badago astean zehar joaten dena ere. Normalean pertsona helduak joaten dira


• **Zenbat ordaindu behar da eguneko?**

UDA edo Murrukixoko bazkide izan ezker, 400pta eguneko, gainontzekoentzat 600pta. Gazteen kuota ezberdina da, eguneko 200 ptatakoa hain zuzen ere.

• **Zer egin behar da Leixargarateko errefujioara joateko?**

Egokiena, Murrukixora hurbiltzea da, martizenetan, arratsaldeko 7:30etatik 8:30etara bitartean bada hobe.

Bertan izena eman, eta fidantza bat ordaindu. Nagusiek 2000



ptatakoa eta gazteenek 1000 pta.

• **Iñaki, Leixargarateko txabolan badago araurik?**

Egia esan, araurik ez dago, baina leku guztietan bezala, errespetua eskatzen da. Mota guztietako jendea joaten da bertara, dena txukun-txukun uzten dutenetatik dena hankaz gora uzten dutenetara. Orokorrean gauzak errespetatzen dira.

• **Azken aldian zein aldaketa egin da bertan?**

Su bajua, fregadera, lurra, kumuna konpondu, fosa septiko bat sortu eta eguzki plakak jarri genituen. Azken hauek moldatu beharrean daude, neguan ez dute ondo funtzionatzen eta. Helburua, aurrerantzean eguzki plaka gehiago jartzeko da. Oso ondo gelditu dela uste dut.

• **Ba dakizu errefujioaren historia?**

Orain dela 25 urte sortutakoa da. Hasiera batean, UDA eta Besaideren artean errefujio bat egitea nahi zen. Azkenean, arazoren bat zela eta, etxea erdibanatu zuten. Bertara hurbiltzean ikus daitekeen bezala, Kanpotik etxe bakarraren itxura dauka, baina barnekaldera sartu eta bi ageri dira. Bata UDARENA da, bestea, aldiz, Besaiderena.

Dorletako Ama Txirrindulari eskola sasoi onean

Lasterketaz beteriko aste-burua izan zuen Dorletako Ama Txirrindulari eskolak pasa den martxoaren 7 eta 8an.

1. urteko Kadeteak

J.M.A.ko partaideak Azpeitiara joan ziren martxoaren 7an. 35 km.tako luzeerako lasterketa honetan 125 txirrindularik hartu zuten parte. Lasterketaren lehen zatia Dorletako Ama eskolako mutilek menperatu zuten. Azkenean, Danel Lazkanok lehen 20en artean sartzea lortu zuen.

2.urteko Kadeteak

Talde honek Beasainen izan zuen bere froga. 102 mutilek hartu zuten parte 54 km.tako lasterketa honetan, horietatik 75ek besterik bukatu ez bazuten ere. Taldea, honako postuetan metaratu zen: A. Odriozola (25), J.M Tena (28), I. Bernal (30), I. Solis (35) eta J.Marcos (45).

Lasterketa honetan, Loinaz eskolaren organizazio falta adieraztea nahi du Dorletako Ama Txirrindulari eskolak, hainbat bidegurutze itxi gabe zeudenez, partaideak arriskuan jarri zituelako.

Jubenilak

Fagor taldeko jubenilek, Eibarren izan zuten 86 km-tako lasterketa. 274 txirrindularik hasi eta 86k amaitu zuten.

X. Beitia 5.postuan sartu zen, eta jarraian, 6.postuan Asier Atxa atxabaltarra.

EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (8)

Mirua ere badatoz

Jadanik agertu zaizkigu hegazti harrapakari hauek gure lurretan. Afrika aldeko negu xamurra gozatu ondoren berriz ere iparralderantz abiatzea erabaki dute. Miru beltza uda bukaera arte bertan geratuko zaigun arren, miru gorriak bere bideari jarraituko dio eta hilabete pare batean baino ez dugu gurekin izango.

Hegazti hauek oso oportunistak bihurtu zaizkigu, izan ere ehiztari txarrak direnez, aurkitzen duten edozer gauza jatera kondenturik baitaude. Adierazgarria da zentzu honetan miru beltzaren habia bera ere, non makila eta adarrez gain, paper, plastiko, artile eta trapu zatiak ere sarri ikusten baitiren. Azter ditzagun baina bi espezie hauek:

Miru Beltza (*Milvus migrans*, Milano negro):


Luzeera: 50 zm.

Pisua: 750 gr.

Izenak dioen bezala, bere ahaideak baino dexente ilunagoa du lumaiaren kolorea. Dena dela, hegazti harrapakari guztien artean bereizteko onena bere isatsari begiratzea izango dugu: berau guztiz triangeluarra baita.

Aurrez esan bezala ehiztari eskasa den arren, bere lurraldea goitik behera miatzen du, hegaldi bajaran, hegoak oker, isatsa erdi zabalduta, eta hegoei behin ere eragin gabe aire korronteak zeharo aprobeztatuz, batere nekatuko ez balitz bezala.

Jateko orduan ez dio ezerri muzinik



Miru gorrien bikotea

egiten, ez arrainei, ez igelei, ez narrastiei ez eta sagu zein arraotiei ere. Hori bai, bere trebezia ezaren erruz animalia gaixoak edo herrenak harrapatuko ditu gehienbat.

Miru Gorria (*Milvus milvus*, Milano real):

Luzeera: 60 zm.

Pisua: 900 g.

Erraz bereiztuko dugu miru beltzetik, makailuaren antzerako isatsa baitu, hau da, "A" itxurakoa. Dexente handiagoa ere bada, eta

izanari jarraiki kolore gorrixkaz apaindu ditu lumak.

Inguruko lurrak begizatzen pasa ohi du eguna, noraezean, baina sekulako gaitasuna eta elegantzia erakutsiz bere hegaldi geldoan.

Ez du habia egitea gehiegi atsegin eta ia beti bigarren eskuko bat erabiltzen du, sarritan beleak eginikoa hartuz etxetat.


Mikel Arroiabe

MIREN
Chunak eta beritasunak
salneurri bereziak
 Murubide, 1 ♦ 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
 espezialitatea
Angelines
 AUTOZERBITZUA
 Mitarte, 16 • 79 61 42

REGI
optika
 Loramendi, 10
 ☎ 79 93 21

Carmen Fernandez
ABOKATUA
 Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: (943) 77 05 94
 Fax: (943) 79 65 21



961. urtean Copreci sortzeko lehen pausoak eman ziren. Sei lagunek hartu zuten parte sorreran: Pedro Mendieta, Luis Mari Ortubai, Luis Maria Arana, Alberto Beltran de Heredia, Luis Maria Urcelai eta Jose Mari Sarasua. 62ko irailean, berriz, lehen faktura egin zen eta 63an Industrias Copreci izena jarri zitzaion. Pedro Mendieta izan zen Copreciko lehen lehendakaria eta Luis Maria Arana lehen gerentea.

Pedro Mendieta gogoan duen moduan, bere etxean, Mitarte kalean, egin ziren lehen bilerak. 120 lagunek jarri zuten dirua hasiera batean, eta 62ko irailean 13 lagun hasi ziren lanean. Lantegia sortu eta berehala hartu zen jendea lanerako. Inguruko enpresetatik alde egin eta Coprecira joan zen jende asko. Alde horretatik, une latzak izan zirela gogoan du Mendieta, "lantegi askok jendea galdu zuelako. Hala ere, gure produktuak inoren kompetentzia ez ziren izan".

Argazkian, griferiako piezak egiten ziren emakumeen sekzioa daukagu. Copreciko lehen produkzioak griferiakoak eta estufa katalitikoendako giltzak izan ziren.

Aurrean esandako moduan, jendeak herriko beste lantegi batzutatik alde egin zuen. Ana Mari Otxoak eta Rosarito Erañak ondo gogoan duten moduan, "herrian zegoen "Lirain" faja fabrika ia utzik gelditu zen". Beste lantegietatik ere jende asko joan zen Coprecira.

Gainera oso gustora ibili zirela diote Ana Mari eta Rosaritok. "Lantegia txikia zen eta denok ezagutzen genuen elkar". Ondorioz, bertan egoten zen giro ona azpimarratzen dute. "Lana soseguz egiten zen, musikarekin, eta gaur egun moduan, bokadiloa jateko tartetxoa egoten zen".

Esan dezagun ba, argazkian fin-fin lanean azaltzen diren hauek nortzuk diren: **Mari Castillo Bengoa, Pili Urzelai, Ana Mari Arbulo, Maribel Urzelai, Rosa Mari Azkarretazabal, Niko Orobengoa, Begoña Urzelai, Mari Jesus Arrieta, Begoña Oteiza eta Rosarito Eraña.**

LANA

◆ Martxan dagoen negozioia jabez aldatzen da Aretxabaletan. 79 95 34 telefonora deitu. Angel.

◆ Astebukaeretan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

◆ Enpresarialesen lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Interesatuak deitu: 79 27 14.

◆ Neska euskalduna eta esperientziaduna denda batean la egiteko prest. Tfnoa: 79 81 16 (Estibaliz).

◆ Kamarera euskalduna eta esperientziaduna behar da komedorerako. Tfnoa: 79 24 58.

◆ Langaiko lan eskaintza

Sukaldari laguntzailea. Ref. 6074/3. Urola erdian kokatutako enpresa.

Harotza. Ref. 6446/2. Deba Behean kokatutako enpresa.


Administratiboa. Ref. 6583/4. Arabako lautadan kokatutako enpresa.

O.H.O.ko irakaslea. Ref. 6892/4. Ermuako akademia batek.

Medikua. Ref. 6910/3. Bilbon kokatutako enpresak.

Interneteko irakaslea. Ref. 6922/1. Bilbon kokatutako enpresak.

Zerbitzaria. Ref. 6713/2. Bilbon kokatutako hotelak.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrera).

LEHIAKETAK

◆ Urretxu eta Zumarragako XVI. bertso papel lehiaketa.

Epea: 1998ko ekainaren 19ko eguerdiko 12ak baino lehen.

◆ Iparragirre saria. Urretxu eta

Zumarragako Udaletako kultura batzordeek antolatuta. Narratiba eta poesia. Epea: 1998ko ekainaren 19ko eguerdiko 12ak baino lehen.

◆ Zumarraga eta Urretxuko

pintura lehiaketa. Epea: irailak 11. Kultur Etxea/X. pintura lehiaketa/Jauregi kalea, 19/20.700 Urretxu. Sari garrantzitsuak: 1. 150.000 pta. 2. 85.000 pta.

◆ Zumarraga eta Urretxuko

argazki lehiaketa. Epea: irailak 11. Kultur Etxea/X. pintura lehiaketa/Jauregi kalea, 19/20.700 Urretxu.

DENETARIK

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktatua jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauek:

79 58 40 (erantzungailua)
79 58 77.

◆ 49 zm3tako motorra salgai. Tfnoa: 79 73 42.

◆ Super 5 copa turbo-a salgai dago. Egoera onean. 79 75 11/76 56 55.

BEKAK

◆ Kirol materiala euskaraz sortzeko beka. VIII. edizioa

Deba Bailerako Euskara eta kirol zerbitzuak kirol arloko euskarazko materialen eskasia dela eta, oinarrizko kirol materiala euskaraz sortzeko beka jarri du martxan. Epea: apirilak 20. Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20.570 Bergara) bidali beharko dituzte eska-bideak.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 77 17 06

Aralar z/g
Tfnoa: 77 17 04

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Handik hona



Pasatu dira egun batzuk **emakumearen eguna** ospatu zenentik, baina ezin dezaket gai hau alde batetara utzi. Martxoaren 8rako kalejira antolatu zen herrian, baina jende gutxi gerturatu zela eta, beste urte baterako utzi zen. Hala ere zoriontzekoa da bertara agertu zen taldea, gehiengo mutilak zirela kontutan hartuta.


Sarreratxo hau egin ondoren, banoa arira. Ez dakit arrantzale askok irakurriko duen hau, baina badaukat beraiei emateko berri garrantzitsu bat. Azken aldian, **milaka har** agertu dira San Miguel auzoan dagoen ibaiertzeko jardinean, hala bada, azkar ibili eta zoazte harrapatzera, haiek baino amu hoberik ez duzue aurkituko eta!

Arrantzaleentzat harrak, eta neuretzat txurroak. Zapatuan txurreroak etorri ziren Atxabaltara. Oraingo egun hauetan aprobetxatu

beharko dut, laster uda dator, eta hondartzara joateko forman egon nahi dut eta. Forman? Herriko **jubilatuak** bai daudela forman. Gaur hona eta bihar hara, baina oraingo honetan martxoaren 10ean Gugenhein museora egindako bisita aipatu behar. Baliteke bertan ikusitako hainbat gauza ez ulertzea, baina diotenez, garrantzitsuena gus-tatzea da, ez baitago inor artea sakonki ulertzen duenik.

Bilbotik Aretxabaleta eta Bartzelonara dabilen beste bat ere badugu herrian. **Pedro Mendieta** Bartzelonako Filo eraikuntza-enpresak egin dion eskaria dela-eta, Bartzelonara joango da bizitzera. Gutxienez datozen bi urtetan enpresako zuzendari orokorra izango da. Azken bi urtetan ere, Bartzelonan eta Aretxabaletan ibili da lanean, baina enpresak Bartzelonan kokatzeko eskatu dio. Hala ere, Aretxabaleta ez dela hain samur ahazten eta ahal duenean behintzat etorriko dela esan digu. Hori esaten da herritik irtetzen den lehenengo egunean, baina gero...

Hara eta hona dabil jendea azken aldian, eta datozen egunetan mugituko direnak ere ez dira gutxi izango. Lau egunetako zubia daukagu aurrean, seguruasko ez da denentzako zubia izango, baina bai askorentzat behintzat. Aitaren eguna behintzat jai izango da guztiontzat. Ondo etortzen dira horrelako jai egunak, deskantsatzeko eta lasai egoteko ez bada ere.



Gizon izandako mutila

Patxi Zubizarreta

Pamiela, 1997

(Tamaina ttikia. Liburu horiak; 3)

Liburutegiko txokoa

“Gizon izandako mutila” izenarekin ezagunagoa zen Antonio Maria bandoleroaren istorioa kontatzen zaigu liburu honetan, Fabian bere lagunaren ikuspegitik. Patxi Zubizarretak Prosper Merimée-ren eredu jarraitu du istorio hau eraikitzean eta haietan bezala bide-lapurren abenturak eta maitasun kontuak ere erabiltzen ditu, batzuk besteen ondorio direlarik.

XIX. mendean kokatua da kontakizuna, gerrate karlisten garaian; baina, nobela istorikoa baino trajikoa eta gordina dela esan daiteke.

Pamielak Tamaina Ttikia sailaren liburu batzuk aukeratu ditu “Liburu horiak” izenez pasta gogorreko argitalpen berrian egiteko.

12 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua duzue hau, eta halako istorioak atsegin duten helduentzat ere gomendagarria da.

Joseba Lopez de Armentia

MARTXOA

18

eguztiena

ODOL EMATEA

Arabako odol bankukoak osasun zentruan izango dira arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

25

eguztiena

ODOL EMATEA

Arabako odol bankukoak osasun zentruan izango dira arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

26

eguztiena

HARRERA SAIOA ETA HITZALDIA

Eólicas de Euskadiko kideek tarte bat eskainiko diote Elgeamendin egin nahi den parke eolikoaren inguruko informazioa nahi duen herritarrari. Arratsaldeko 4etatik 7etara bitartean. Ondoren 7etatik 8etara hitzaldia egongo da udaletxeko pleno aretoan.

27

eguakotxa

MURRUKIXO MENDI ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7,30etan murrukixoko lokalean.

31

martizena

ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7,30etan udaletxeko pleno aretoan.

MENDI ASTEA OÑATIN

Oñatiko Aloña Mendi mendi taldeak mendi astea antolatu du martxoaren 23tik 29ra.

Astelehenetik ostiralera bitartean bost diapositiba emanaldi ikusgarriekin gozatzeko aukera izango da Santa Ana antzokian arratsaldeko 7,30etan. Horrez gain, aste guztian zehar Javier Fernandez argazkilari profesionalaren argazki bilduma egongo da ikusgai Santa Ana antzokian (19:00-19:30).

Martxoaren 23an: **“Aizkorri lurrazpian”** Amet Aloña


Mendiko Espeleologia taldea.

Martxoak 24: **“Manaslu (8.163 m.) izpirituen bizilekua”**. Egilea: Koke Lasa.

Martxoak 25: **“Hiru haundietako eski zeharkaldia”**. Egilea: Miguel Angel Otxoa eta Batis Goikoetxea.

Martxoak 26: **“Yosemite zenyatta mondatta (A5)”**. Egilea: Adolfo Madinabeitia.

Martxoak 27: **“Nepalen alde ezkutua”**. Egileak: Esther Mugerza eta Amaia Elozegi.



Z
I
N
E
A



ZUZENDARIA: Lee Tamahori.
AKTOREAK: Anthony Hopkins, Alec Balwin, Elle Macpherson.

El desafio

Emakume bera maite duten bi gizon gizakiarena baino arriskutsuagorik ez den naturarik ez dagoela konturatuko dira. Zibilizazioa bukatzen denean, hasten da biziraupena.

IKASTAROAK

**BIBLIOTEKONOMIA ETA
EGUZKI ENERGIAREN
ERABIL-MODUAK**

Bibliotekonomia apirilaren 17tik maiatzaren 9ra emango da.

Ostiraletan 7etatik 9etara eta larunbatetan 9etatik 1,30etara.

Lehenengo maila 20 ordukoa izango da. Prezioa: 14.500 pta.

Beasaingo Udal liburutegian emango da.

Eguzki energiaren erabil-moduak ikastaroa apirilaren 17tik

ekainaren 27a artekoa izango da.

Ostiraletan 7etatik 9etara eta

larunbatetan 9etatik 1,30etara.

Prezioa: 19.500 pta. Beasaingo

Udal liburutegian emango da.

Informazioa: Kulturkide 16 18 40.

TAILERRAK

ANTZERKI TAILERRA

16 urtetik gorakoentzat.

Martxoaren 26tik San Juanak

artean, 11 astez, ostegunetan

6etatik 9etara. Matrikula 7.000

pta, bazkideentzat 6.000 pta eta

ikasle eta langabetuentzat 5.000

pta. Izen ematea eta informazioa

AEDn 77 12 28 telefonoan. Epea:

martxoaren 20a baino lehen.


**BEHARREZKO
TELEFONOAK**
Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltea	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otorora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdia (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

**UDALEKU IREKIAK
ESKORIATZAN**

Eskoriatzako Udalak herriko umeendako "udaleku irekiak" antolatu ditu uztaileko. Udaleku

hauek zuzendari eta begirale

izateko epea zabalik dago.

Martxoaren 31a baino lehen

"curriculum vitae" a Eskoriatzako

kultur etxean aurkeztu behar da.

Baldintzak: 18 urte beteta izatea

eta euskara ahoz zein idatziz

menperatzea.

Auzoetako mezak:

Martxo (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.

- Azatzan 12etan.

- Arkarazon ordu 1etan.

Z A R A I A Z I N E M A

Martxoak 19, 20, 21, 22,

EL DESAFIO

Martxoak 22.

**LA LEYENDA DE
GALGAMETH**

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

El desafio pelikula ostegun gauean ere botako da. Domekan 7,30etan bakarrik eta astelehenan ez da saiorik izango.



Zaraia zinemara joaten zaretenok behintzat, Mari Jose Fuensanta takilan ikusiko zenuten. Orain dela 5 hilabete ekin zion lan honi. Bere aisialdiko denbora, eskulanak egin eta euskera ikasteko era-biltzen du.

• Jende asko joaten al da Afixabaltan zinemara?

Nik 5 hilabete.daramatzat Zaraia zineman lanean, eta bitarte honetan behintzat, ez da jende asko joan.

• Fimeak gogoko dituzu?

Bai, neuri filmeak ikustea asko gustatzen zait. Pelikulak onak badira, normalean ikustera joaten naiz.

• Zein filme gomendatuko zenuke?

“Neure hobbirik garrantzitsuena bizitzea da”

Sekretos del Corazón. Aretxabaletan ez dugu bota, baina merezi du ikusteak..

• Ikusi duzun pelikularik txarrena?

Arnold Schezeneger eta Silvester Stallonerenak ez zaizkik bat ere gustatzen. Akziozkoak eta poliziakak diren horietakoak.

• Aktore bat?

Ah! Jhony Depp.

• Eskulanetan trebea zara?

Ni? Bai, oso! (ja,ja)

• Zein teknika lantzen duzu?

Keramika eta materiale ezberdinen margoketa. Gehien gustatzen zaidana, margotzea da, burdina, kristalak eta egurra margotzen ditugu..

• Eskulan horiekin zer egiten duzu?

Normalean oparitu egiten ditut, beste batzutan aldiz, oparitu gabe hartzen dizkidate.

• Ametsetako lana?

Jendearekin erlazionatzen den edozein. Pertsonekin kontaktuan egotea asko gustatzen zait.

• Loteria fokatuz gero zer egingo zenuke?

Dena gastatu. Lehenik etxe bat erosi, ondoren bidaia luze bat egin, eta gainontzekoa...gastatu!.

• Nola ikusten duzu atxabaltako

etxeen egora?

Bigarren eskukoak ez dira oso garestiak, baina inguruko herrietako jendea Aretxabaletara etortzen hasi denez, denbora pasa ahala, garestitu egingo direla uste dut..

• Ohetik jaiki eta zer da egiten duzun lehenengo gauza?

Zigarro bat erre.

• Zein da zure hobby-a?

Bizitzea.

• Superstiziorik?

Bai, asko gainera. Adibidez eratzun berri bat jartzen dudanean, egun hori orokorrean txarra izaten bada, ez dut berriz jartzen. Eskerrak gauza garestiak eramaten ez ditudala!.

• Emakumeen eguna ospatzen duzu?

Bai lan egiten. Normalean ez dut ezer berezirik egiten

• Mari Jose, animalia bilakatuz gero, zein aukeratuko zenuke?

Pokampus. Itsas zaldia.

• Oporretan nora?

Hondartza dagoen edonora

• Zein da zure horoskopoa?

Kantzer

• Nondik dator zineman jatearen ohitura?

Ameriketatik datorren ohitura bat dela uste dut, filmeetan, beti palomita jaten ikusten ditugu.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETAN
Tfnoa: 79 32 34

Kixkor taberna

KIXKOR
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETAN
☎ 79 20 60

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

Josu harategia

- Urdaitegia-Gozotegia
- kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETAN
Tfnoa: 77 03 08

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETAN

Express akeitegia

**Express
akeitegia**

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETAN ☎ 79 23 43

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 Tfnoa: 79 20 89

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETAN
☎ 79 20 67

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

◆ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETAN
☎ 79 68 57

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETAN
Tfnoa: 79 85 57

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 79 92 01

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 79 73 65

Dorleta taberna

Dorleta

Beti bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETAN
☎ 79 94 15

Mitartegarai

*Mitartegarai
Jatetxea*

Arientza auzoa
ARETXABALETAN
Tfnoa: 79 17 51



Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 79 20 64

ETXE MOBEL

M U E B L E S

A L T Z A R I A K

LOGELETAN
maisuak

Zapatu
arratsaldeetan
zabalik!!



Eta orain
2. SOLAIRUA

Saloi eta sofa
erakusketa

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE